



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB - CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. FORU SOZIJETATE PUBLIKOAN EROSKETA-TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LAN KONTRATUDUN LANGILEEN HAUTAKETA ARAUZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2022006)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Erabiltzaileentzako Arreta eta Ekipamendu Atalean sartuko da, proiektuaren buruaren eta, aldi berean, ataleko arduradunaren mende.

Lanbide jardueran AKSAn ondoko eginkizunak bete beharko ditu:

- **EROSKETEN KUDEAKETA**
 - TI produktu guztien erosketetan aholku ematea eta haiek izapidetzea, kontuan hartuz sail egokiek (AFA, AKSA eta kideko erakundeak) eman dizkioten zehaztasunak edo laginak.
 - Erosketen espedientean jasotako elementuak xehatzea eta eskabidea egiteko behar diren ezaugarri teknikoak zehaztea.
 - Eskaintzak eskatzea eta haiek egiaztatzea.
 - Eskabideak eta haien jarraipena eta erreklamazioa egitea.
 - Jasotako materialaren harrera eta egiaztapena, eta inbentarioari eranstea. Lan hau era presentzian egin behar da.
 - Software erosketak: Saltzaile/banatzaileen orriak aktibatu eta deskargatzea eta inbentarioari eranstea.
- **KONPONKETEN ETA BERMEEN KUDEAKETA**
- **MANTENTZEAK ETA URTEKO HARPIDETZAK KUDEATZEA**
 - Berrikustea eta mantentzeak sorrarazi zituzten beharrezan irauten dutela egiaztatzea.
 - Mantentzeen informazioa balidatzea fabrikatzaileen webguneetan eta inbentarioa eguneratzea.
- **BEHARREN TXOSTENAK ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK EGITEA:**
 - Beharren txostenak eta mantentzeen/urteko harpidetzen agiriak egitea.
 - TI ekipamenduaren beharren txostenak eta baldintza teknikoaren agiriak egiten laguntzea.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- AFA-REN ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZAN MIKROINFORMATIKA BATZORDEARI AHOLKU EMATEA.
- SOLASKIDE IZATEA KIDEKO ERAKUNDEETAN EROSKETEN ARDURA DUTEN PERTSONEKIN ETA ELZ/HELPDESK-EKIN.
- AKSA-REN MATERIALA DAUKATEN BILTEGI GUZTIEN ETA HAIEN KUDEAKETA-SISTEMAREN ARDURADUNA:
 - Biltegia kudeatzea
 - Gutxienerako stock-a kudeatzea
- DPG-REN SOFTWARE INBENTARIOA MANTENTZEA ETA KONTROLATZEA.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Hautagaiek posta elektronikoz 2022006@qualisconsultores.es helbidera bidali beharko dituzte oinarri orokorren 3.1) puntuak eskatzen diren agiriak (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago badu, mezu bat baino gehiago bidali beharko dira, onartutako muga gainditu gabe haietako batean ere).

Eskabideak aurkezteko epea **2022ko uztailaren 4an amaituko da.**

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Informatikako lizentzia edo gradu baliokidea, EAZko ekonomia eta enpresa-zientzietako lizentzia edo gradu baliokideak.
- Beste ingeniarietza batzuk, fisika edo matematika lizentziak edo gradu baliokideak, edo informatika arloko erosketekin loturiko gradu ikasketak edo baliokideak.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

Deialdi bakarreko sistemaren arabera ariketak edo probak eginez gero, edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste ekintza batzuk izanez gero, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea, behar bezala egiaztatuta, arrazoi izan daitezke ekitaldia egiteko denboraren eta/edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzeko.

Aldaketa-eskaerei erantzuteak berekin ekarriko ditu hautagai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa-neurriak.

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa izango da (GAI – EZ GAI).

- Ezaupideak:
 - Sistema eragileak, ziurtagiri digitalak eta autentifikazio sistemak
 - Hardwarea, IT nomenklatura eta PCren arkitektura
 - Software-aren definizioa eta motak, eta mantentze kontratuak.
 - Postuen periferikoen ezaugarriak
 - Ingurune hibridoen eta hodei-inguruneen definizioa eta ezaugarriak

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):

A) Titulazioak (geh. 10 puntu):

A.1) Akademikoak (gehienez 8 puntu):

- Informatika lizentzia edo gradu baliokidea, EAZko ekonomia eta enpresa-zientzietako lizentzia edo gradu baliokideak. 7 puntu.
- Beste ingeniaritza batzuk, fisika edo matematika lizentziak edo gradu baliokideak, edo informatika arloko erosketekin loturiko gradu ikasketak edo baliokideak: 3 puntu
- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen masterra: Puntu 1

A.2) IT Txartela ziurtagiriak (gehienez 2 puntu):

- Microsoft Excel 2010 aurreratua (edo bertsio berriagoa, halakorik badago): Puntu 1
- Microsoft Access 2010 (edo bertsio berriagoa, halakorik badago): Puntu 1

B) Hizkuntzak (gehienez 4 puntu):

B.1) Hizkuntza: Euskara (gehienez 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (gehienez 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (gehienez 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratua.

2 urtetik gorako esperientzia izatea lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu.	<ul style="list-style-type: none">- Oso ondo betetzen du: 16 puntu.- Nahiko ondo betetzen du: 12 puntu.- Ondo betetzen du: 8 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
Urtebete baino gehiagoko esperientzia lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none">- Oso ondo betetzen du: 16 puntu.- Nahiko ondo betetzen du: 12 puntu.- Ondo betetzen du: 8 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Balorazioa egiteko:

Honako hauek hartuko dira kontuan:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du	% 100
Nahiko ondo betetzen du	% 66 > eta % 100 <
Ondo betetzen du	% 33 > eta % 66 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	% 0 > eta % 33 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, balioetsiko dira hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, bai eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora ere.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO ARIKETA PSIKOMETRIKOA:

- Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa izango da (GAI – EZ GAI).
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsoneri eta 1. fasean gaitzat jo direnei egingo zaizkie probak.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako izangai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Lau hautagaietako batek gutxienez 7,5 puntu lortzen ez baditu gaitasun zatia balioestean elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoa balioestean elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonek jarraituko dute.
- Lau hautagaietako batek ere ez baditu lortzen gutxienez 7,5 puntu gaitasun zatia balioestean elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoa balioestean elkarrizketan, laurak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira, eta hautaketa epaimahaiak hurrengo hautagaiengana joko du.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50

